

musika

■ Agurain

● Desterrados, Betagarri, Amparanoia, EH Sukarra, Pi.L.T. eta King Mafrundi. Kiroldegian, 22:00etan. 1.000 pezetan. IV. Intsumisio Eguna.

■ Alzaga

● Triki Ta Ke. 23:00etan.

■ Baiona

● Martine Caplanne. Luna Negra aretoan, 21:30etan. 50 liberan.

■ Barakaldo

● Milladoiro. Barakaldo antzokian, 20:30etan.

■ Bergara

● Bad f-Line eta Foscal. Jam aretoan, 23:00etan.

■ Bilbo

● Bilboko Udal Banda. Zorrotzan, 12:30etan.
● Masa Coral del Ensanche. Pergolan, 21:30etan.

■ Derio

● Blues Thorpes. San Miguel auzoan, 02:00etan.

■ Donapaleu

● Anje Duhalde, Irintzina. Hurlements d'Leo eta Massilia Sound System. 50 liberan.

■ Donibane - Lohizune

● Pier Paul Berzaitz, Jean Mixel Bedaxagar, Niko Etxart eta aita, eta, Aire Ahizpak. Elizan, 21:00etan. 50 liberan.

■ Elgoibar

● Luhartz. 23:30etan.

■ Elizondo

● Benito Lertxundi eta Magali Zubillaga. Udal frontoian, 22:00etan. 1.000 - 1.200 pezetan. Antolatzailea: Xorroxin Irratia.

■ Gaintza

● Koldo eta Arantxa Iparragirre. Gauean.

■ Gares

● Stratovarius eta Elegy. Gares aretoan, 22:00etan. 2.000 pezetan.


■ Getxo

● Iruñeako Pablo Sarasate Musikaetxe

a g e n d a

m u s i k a

Fitxa: Kantariak: Mikel Laboa eta Morau. **Lekua:** Lekeitioko Santi Brouard Pilotalekuan. **Data:** Irailaren 20. **Ordua:** 22:30ak. **Iraupena:** Morauk ordubete eta Mikel Laboak bi ordu. **Ikusleak:** 1.200.



Mikel Laboak ez zuen ezustekorik eman; Lekeition ere bikain aritu zen.

Lau gelatako unibertsoa

LEKEITIO eta Mikel Laboa elkarrekin doazen bi eremu dira. Horrexegatik irailaren 20an Lekeition eman zuen emanaldia ezin zen arrunta izan. Alde batetik, herriaren izena lau haizetara zabaldu duen kantariari harrera egiteko zazpi bat urte (Laboak berak ez zuen gogoratzen zehatz-mehatz zenbat denbora) itxaron behar izan dute lekeitiarrek, eta bestetik Laboak umetan bizi izan zituen paisaiekin bat egiteko aukera paregabea zuen.

Inork ez zuen kale egin. Kantaldia erabat arrakastatsua izan zen. Frontoia leporaino bete eta Mikel Laboak keinu bat baino gehiago oparitu zion herri honi. *Oies errondan dabil* amodiozko kanta lekeitiarra gaueko lehenengo ezustea izan genuen. Hasierako Laboa ekarri zigun gogora. Bide esperimentalean, berriz, Lekeitioko berben doinuaren gaineko inprobisazioak etxean entzun ziren eta ikusleak, berriro ere, liluraturik. Gogoratu behar dugu Gardatan (Lekeiotik hurbil dagoen auzo honen aipamena ez zuen ahaztu) txikitant entzundako doi-

nuetan oinarritu dela horren harrigarria den esperimentazioa burutzeko. Txillardegik berak inoiz aipatu du kostalde honetako azentuaren garrantzia, antzinako oihartzun zaharrenetakoak izan baitaitezke. Mikel Laboa ez da kantugile soila. Laboa jarri bat da. Unibertso musikal bat. Horren isla ditugu gaurko kantaldiak. Ñabardurez jositako ikuskizunak. Urrats bakoitza irudi musikal bat da. Batzuetan, zilarrezko ahotza eta gitarraren laguntza baino ez. Bestetan, jazz bandarekin Iñaki Salvadorren gidaritzapean. Horrez gain, hainbat gonbidatu tartekaturik. Horra hor Carlos Itoitzen gitarra bikaina atzerriko kulturak irudikatzen, lau txalapartari antzina eta garaikideena estutzen eta Joseba Tapiaren soinu txikia Sarrionandiaren poema baten oinarria jartzen. Ondorioa luxuz beteriko proposamena, arras apala eta dotorea era berean. Orain dela hogei bat urte ikusi nuen Laboa aurrenekoz. Garai hartan *Ikimilikiliklik* ikuskariak harritu zituen denon begi eta belarriak. Zer aldatu da *ikimilikiliklik* lanetik

gaur arte? Funtsean ezer gutxi. Jakina, kantu sorta aberastuz joan da eta denboraren gorpilak ez du osasuna barkatzen, baina nekez esan daiteke bihotzaren lau gelataraino heltzeko Mikelek duen erraztasuna ahuldu denik. Lekeition baziren gazteak lehendabiziz. Laboaren aurrean eta irtendakoan zirrara horren berri jaso genuen. Enbor beretik sortuko dira ardatzka gazteak... Non dago Mikel Laboaren magia? Ezin da azaldu, zuzeneko errainetan bizi da. *Kantuz bizi* Arizkuneko *a cappella* kantatutako bertsoekin hasi eta *Txoriak txori* askatasunari buruzko kantarik ederrenetakoarekin amaitu arte, taulen gainean mugitzen da urdin ilunez jantzitako azitia. Atxaga, Sarrionandia, Artze, Brecht... poeten bitartekari bikaina. Komunikatzaile aparta. Emozioen zirikatzailea. Mikel Laboak euskal kantagintzaren eratu duen unibertsoa betirakoa izango da. Hain da hauskor, sentikor, maitekor...

Donostiako kantugile heldua baino lehen belaunaldi berrien adierazleetako bat igo zen eszenatokira. Morauk ez du zerikusi handirik Mikelekin. Kantugile honen bidea bizitzari buruzko kronikak egiteko tankeran baitatza. Hernaniarraren baladak ironiaz blai dauden istorioak iradokorrak dira. Baina espazioa eta denbora hobetotxo neurtu behar izan zuen. Gehienentzat luze-egia gertatu zen bere emanaldia. Lekua eta soinua ez baitzen egokiena. Dena dela, Joxi Ubedak (Deabruak Teilatuetan) kolore polita eman zion kantugilearen eginkizunari. Nabaria zen kostaldeko herri horretan dituen zaleak (Zulo tabernan izandako agerraldien ondorio zuzena). Eta ezin zaio ukatu zabaldu duen bidea oso interesgarria dela. Gaur, Morau etorkizun handiko kantugile dugu eta Laboaren izarren hautsa urrun badago ere batek daki datorren milurtearen nolako mito berriak sortuko diren. Euskal Herrian Euskaraz taldeak asmatu zuen. Kantaldia lan eder eta profesional baten emaitza izan baitzen. Soinu-ekipoaren hutsak gainditzen dira emozioz beteriko ekitaldi batekin. Mikel eta Morau euskal kantugileen lehen, orain eta geroaren ordezkari kuttunak.

Imanol Agirre